

PROBABILITATE BANAKETEN ZEHAZTAPENERAKO ARIKETAK

Ikasi ditugunetatik zein banaketa erabiliko zenuke, konbentzionalki, ondoko aldagaietarako?

1. Denda batera sartu diren pertsonetatik zerbait erosten dutenen kopurua.
2. Egunero errepide batean gertatzen den istripu kopurua.
3. Istripu batetik besterako denbora.
4. Etxalde bateko urteko sagar uztaren bolumena.
5. Akziodun batek jasoko duen dibidendua, erabat ziurgabetasunean, baino bti 10 euro baino txikiagoa dela jakinda.
6. Ospitale batean, hurrengo larrialdira bitarteko denbora.
7. Kontzesionario batean lau auto saldu arteko denbora.
8. Pisu bat alokatu arte zenbat aldiz erakutsi behar den.
9. Salgai jarritako pisu bati buruz galdezka, egunero jasotzen den dei kopurua.
10. Salgai dagoen pisu bat ikusi duten guztietatik, zenbatek deitzen dute bigarren aldi batean.
11. Emakume batek bi alaba izan arte izan beharreko ume kopurua.
12. Urtean zenbat egunetan egin duen euria.
13. Maiatzeko tenperatura maximoa.
14. Zenbat ikaslek gainditu duten irakasgai bat.
15. Alderdi politiko batek lortu duen boto kopurua.
16. Emakume batek ligatzeko sare sozial batean zenbat like jasotzen dituen.
17. Match egin arte zenbat like eman behar ditudan ligatzeko sare sozial batean.



gizapedia.org